Arartekoaren 2016R-1567-15 Ebazpena, 2016ko azaroaren 9koa. Horren bidez, Añanako Kuadrillari, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari eta Osmako Administrazio Batzarrari gomendatu zaie Osma herrian dauden hiri-hondakinak biltzeko edukiontziak beste leku batean jar ditzatela.

Aurrekariak

1. (...) jaunak kexa bat aurkeztu du erakunde honetan, hiri-hondakinak biltzeko edukiontziak kokatzeko modua desegokia iruditzen zaiolako. Izan ere, kokapenak kexagileak Osma alkate-auzoan duen ondasuneko harresia erortzea eragin du.

   Herritarrak azaldu duenez, 2010. urtetik konponbide bat erreklamatzen ari da, bere ondasuneko harresiaren ondoan dauden edukiontzien kokapena dela-eta. Izan ere, kokapen horrek arriskua sortzen dio ibilgailuen trafikoari zein hormaren egonkortasunari, edukiontziek (batez ere, beira-edukiontziak) kexagilearen lursaileko harresia kolpekatzen baitute, kargatzean eta deskargatzean. Horren ondorioz, gaur egun, hormaren zati bat erorita dago eta gehiago erortzeko arriskua dago.

   Añanako Kuadrillako presidenteak bi aldiz jaso zuen arazoaren berri: 2015eko urtarrilaren 26ko idazkiaren bidez, eta gero, 2015eko maiatzaren 13ko mezu elektronikoaren bitartez. 2015eko uztailaren 1ean (irteera-erregistroko data), kexagileak Kuadrillako presidentearen idazki bat jaso zuen, honela dioena:

   "*La entidad que gestiona la recogida del vidrio y propietaria del contenedor es ECOVIDRIO, no siendo la Cuadrilla de Añana responsable de los daños que con ocasión de la prestación del servicio de recogida de los contenedores puede ocasionar a terceros...*".

   Interesdunak, bere aldetik, salatutako kokapenaren egokitasunari buruzko informazioa eskatu zion Arabako Foru Aldundiari. Hain zuzen, 2012ko maiatzaren 25eko ebazpen-proposamena aurkeztu zuen, teknikari legelariak eta Errepide zerbitzuburuak sinatua. Horren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko zuzendariaren onespenarekin, edukiontzien kokapena aldatzeko gomendatzen zen, sortzen zuen arriskuagatik.

   Txostenak proposatzen zuen Añanako Kuadrillari jakinaraztea komenigarria zela eskualdeko sareko A-2625 errepideko 334+770 kilometro-puntuan jarritako edukiontziak kentzea, alde batetik, erabiltzaileen bide-segurtasuna bermatzeko eta arriskurik ez sortzeko, eta bestetik, Gaubeako hirigintza planeamenduko arau subsidiarioetan oinezkoentzako espaloi bat egitea aurreikusita zegoelako. Hori dela eta, proposatzen zen errekeritzea bi

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

hilabeteko epean errepideen zaintzaren baimena eska zezaten, kokapen egokiago bat bilatzeko.

2. Erreklamazioan azaldutako kontuak aztertu ondoren, Arartekoak informazioa eskatu zien Añanako Kuadrillari, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari eta Osmako Administrazio Batzarrari. Bide batez, kexaren edukia ikusita, lehen gogoetak helarazi zizkien erakunde horiei guztiei.

3. Hala, erakunde honek jakinarazi zion Añanako Kuadrillari, hiri-hondakinak biltzeko zerbitzua arautzeko 2010erako zerga-ordenantzarekin bat, derrigorrez eskaini behar zen zerbitzua zela eta Kuadrillaren ardura zela beharrezko edukiontziak antolatzea eta jartzea, zerbitzua behar bezala emateko (13. artikulua). Gauzak horrela, Arartekoaren iritziz, kudeaketa-sistema edozein dela ere, eta ECOVIDRIO enpresarekiko kontratu-harremanak alde batera utzita, zerbitzua kudeatzea Añanako Kuadrillaren ardura da. Dena den, horrek ez du eragozten kontratuko betebeharrak ez betetzeak eragin ditzakeen kalteengatik zerbitzua ematen duen enpresari egotz dakizkiokeen gastuak ordainaraztea.

   Arartekoak, bere aldetik, eskatu zion Arabako Foru Aldundiari zerbitzu teknikoen ebazpen-proposamenari (bide-segurtasunari sortzen zaion arriskua dela-eta, edukiontziak kentzearen komenigarritasunari buruz) emandako izapidearen inguruko informazioa. Bide batez, galdetu zion proposamena benetan betetzeko hartutako neurriez, halakorik izanez gero, betearazte subsidiarioa barne arazoa konpondu ezean, hau da, edukiontziak beste toki batean jartzen ez baziren.

   Azkenean, Osmako Administrazio Batzarrari ere eskatu zitzaion informazioa, edukiontziak beste toki batera eramateko beharrari buruz. Añanako Kuadrillak erabaki zuen Administrazio Batzarrak zuela edukiontzien kokapena zehazteko eskumena, Foru Aldundiaren errekerimendua –edukiontziak beste toki batera eramateko– bete gabe.

4. **Añanako Kuadrillak** 2015eko urriaren 19ko idazkiaren bidez erantzun zion Arartekoaren informazio-eskaerari, eta azaldu zuen zerbitzua ematen zuen enpresak konpromisoa hartu zuela (idatziz) eraitsitako harresia konpontzeko.

   Edukiontzien kokapenari dagokionez, Kuadrillak esan zuen bidali egin ziola Osmako Administrazio Batzarrari Arabako Foru Aldundiaren errekerimendua (errepideak arautzen dituen araudi sektoriala ez betetzeagatik edukiontziak zeuden tokitik kentzeko). 2012ko abuztuaren 8an bildu zen Kontzeju irekiak edukiontziak beste toki batera eramateko proposamenaren kontra agertzea erabaki zuen eta jasota utzi zuen ez zuela onartuko edukiontzien kokalekua aldatzerik.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Añanako Kuadrillak jakinarazi zien, bai Osmako Administrazio Batzarrari, bai Foru Aldundiari, prest zegoela hiri-hondakinen bilketa zerbitzua emateko behar ziren edukiontziak Administrazio Batzarrak eta Foru Aldundiak zehaztuko zuen toki batean jartzeko, baldin eta kokalekuak kamioiak heltzeko baldintzak betetzen bazituen.

Erantzuna ikusita, Arartekoak kontuari buruzko gogoeta batzuk helarazi zizkion Añanako Kuadrillari, 2012. urtetik ez baitzen aurrerapausorik egin konponbide bat emateko. Hori dela eta, erakunde honek adierazi zuen, jasotako salaketaren aurrean behar zen konponbiderik eman ez zela ikusita, bidezkoa zela neurri egokiak hartzea, berezko eskumenak baliatuz.

Azaldutako gogoetei erantzunez, 2015eko abenduaren 17an, Añanako Kuadrillak idazki bat bidali zion Arartekoari. Horren bidez jakinarazi zion Gaubeako Udaleko arkitektoak edukiontziak Osman kokatzeko aukerei buruzko txosten bat egin zuela. Gainera, hitz egin zen Osmako Administrazio Batzarraren presidentearekin, kokalekurik egokiena aurkitzeko. Era berean, proposamena Arabako Foru Aldundiari bidali zion, jabari publikoaren eremuari (errepideari) eragiten zioenez, edukiontziak instalatzeko baimena eskatzeko.

2016ko otsailaren 10ean, kexagileak idazki bat bidali zion Arartekoari, honako hau esateko: Añanako Kuadrillak 2016ko urriaren 19ko idazkian adierazitakoa gorabehera, kexagilearen ondasuneko harresia konpondu gabe zegoen oraindik eta edukiontziak ez ziren beste toki batera eraman.

2016ko apirilaren 20an jasotako mezu elektronikoaren bidez, Añanako Kuadrillak jakinarazi zuen kexagilearen jabetzako harresia konpontzeko lanak bukatu zirela eta edukiontzien kokapenari buruzko proposamenari Arabako Foru Aldundiak zer erantzungo zain zeudela.

Azkenean, idazki asko bidali eta hainbat kudeaketa egin ondoren, 2016ko irailaren 30ean jasotako jakinarazpenaren bidez, Añanako Kuadrillak honako hau jakinarazi zion Arartekoari: Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuak, 2016ko irailaren 1eko 1607 zenbakiko ebazpenaren bidez, baimena eman zion Añanako Kuadrillari Osma herrian hiri-hondakinen edukiontzien kokalekua aldatzeko lanak burutzeko, hain zuzen ere, edukiontziak A-2625 errepideko 334+890 kilometro-puntuan, ezkerreko ertzean, galtzadaren kanpoko ertzetik 3,00 metrora eta errepidearen plataformatik ahalik eta urrunen (itxiturako hormaren ondoan) kokatzeko, nahitaezko baimenean adierazitako krokis eta baldintzei jarraiki. Halaber, Kuadrillak jakinarazi zuen edukiontziak kokaleku berrira eramateko lanak urriaren lehen egunetan burutuko zirela.

Hala ere, urrian, kexa aurkeztu zuen herritarrak jakinarazi zion Arartekoari edukiontzietako bat lehen zegoen tokian geratu zela. Kexagileak lortutako informazioaren arabera, Uraren Euskal Agentziak kokapen berriaren kontra

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

egin zuen, urpean gera daitekeen zona delako. Ondorioz, arazoa konpondu gabe geratu zen.

Añanako Kuadrillak egiaztatu zuenez, izan ere, zehaztutako kokapen berriak ez zuen URAren baimenik, hortaz, arazoa konpontzeko, beste toki bat bilatu behar zen.

5. **Arabako Foru Aldundian** egindako kudeaketei dagokienez, 2015eko abenduaren 22an, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren idazki bat jaso zen erakunde honetan.

Erantzunaren arabera, Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak ekainaren 6an emandako 1314/2012 ebazpenaren bidez, honako hau errekeritu zion Añanako Kuadrillari: "*[que] retirara los contenedores instalados en el pk 334+770 de la carretera de la Red Comarcal A-2625, y asimismo para que en el plazo de dos meses solicitara el correspondiente permiso de policía de carreteras al objeto de buscar una ubicación más adecuada para los mismos, informando el controlador de carreteras de-la zona con fecha 21/11/12 que los contenedores continuaban en el mismo lugar y que no se había solicitado permiso de policía de carreteras por parte de la Cuadrilla de Añana en relación con el cambio de ubicación".*

Era berean, foru erakundeak edukiontziak jartzeko beste kokapen bat aurkitzeko burutu zituen jardueren berri eman zen. Horiek horrela, hasieran, papera eta beira biltzeko edukiontziak –galtzadaren alboko lursaileko harresia kolpekatzen zuten horiek– kentzea erabaki zuen Osmako Kontzejuak. Geroago, Arabako Foru Aldundiaren ebazpenaren aurka errekurtsoa jarriko zuela jakinarazi zuen, baina kontua ezertan geratu zen, Kuadrillak ez baitzuen errekurtsoa bideratu nahi, bide-segurtasunarekin eta jabetza partikularrari eragindako kalteekin lotutako arrazoiak direla medio, beste kokapen bat aukeratu behar zela uste zuelako.

Azkenean, hainbat jarduera egin ondoren, Osmako Kontzejuak, 2012ko uztailaren 8an hartutako erabakiaren bidez, edukiontzien kokapena aldatzearen kontra agertu zen.

Aurrekari horiek kontuan hartuta, Arabako Lurralde Historikoko herri-batzarrei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 7.1d) artikuluari jarraiki, foru sailaren iritziz, Osmako lurralde-eremuan zerbitzuak ematea, besteak beste, hondakinen bilketa, Osmako Kontzejuari dagokio. Izan ere, berari dagokio edukiontziak jartzeko kokalekuak zehaztea, Añanako Kuadrillako aholkularitza juridikoak adierazi baitu bere zeregina Kontzejuak proposatutako kokapena onartzea besterik ez dela.

Bestalde, hondakinak biltzeko edukiontzien kokapena zehaztea Osmako Kontzejuaren ardura bada, eta kokapen berria onartzea Añanako Kuadrillarena, eta gainera, beirazko ontzien kasuan, mota horretako

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

edukiontzien kokalekua zehazteko ECOVIDRIO enpresaren esku-hartzea beharrezkoa denez, ikuspuntu juridikotik ez dirudi bidezkoa, ezta bideragarria ere, Foru Aldundiak ekainaren 6ko 1314/2012 Ebazpenaren nahitaezko betearazte espedientea izapidetzea, aipatutako herriko biztanleei oinarrizko zerbitzua denbora mugagabez kenduz.

Puntu honetan, aurretik azaldutako gogoetei laguntzeko, Extremadurako Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak maiatzaren 23an eman zuen 771/2000 zenbakiko Epaia aipatzen dute (RJCA/2000/1451). Horren xedea administrazioaren jarduna berrikustea da, udal batek abiarazi duen hondakinak biltzeko zerbitzuaren antolaketari, eta zehazki, bilketarako edukiontzien kokapenari dagokionez. Azken kontu hori, errepikakorrak ez izateko, gogoeten atalean azalduko dugu.

Foru erakundeak bere erantzunean azpimarratu duenez, (...) jaunak aurkeztu zituen arrazoizko kexa guztiak ikusita, Osmako Kontzejuak: "***debió haber valorado no solo una sino otras ubicaciones posibles y en el supuesto de optar por la ubicación actual debió haber motivado de forma suficiente su decisión en detrimento de las otras opciones posibles****, y ello por considerar que existiendo la posibilidad de instalar los contenedores en una ubicación en la que no se perjudiquen derechos de terceros y sea viable desde el punto de vista de la gestión del servicio y de la seguridad vial ésta deberá prevalecer sobre la ubicación actual."*

6. **Osmako Administrazio Batzarrak,** bere aldetik, Arartekoaren informazio-eskaerari erantzunez, esan du bai Kuadrillari, bai Udalari jakinarazi diola Batzarrak ez duela zerbitzu horiek antolatzeko eskumenik. Azaldu duenez, bere ustez biztanleentzat egokia zer den esan dezake, baina azken erabakia eskumena dutenen eskuan utzi behar du.

   Bigarrenik, argudiatzen du Batzarrak, herriaren ezaugarriak direla-eta, oso zaila izaten da ibilgailu astunak errepidean ez dauden puntuetara heltzea, sarbideak oso estuak direlako. Ondorioz, mugatu egiten da edukiontziak jartzeko kokalekuen kopurua. Bestalde, aipatutako edukiontziak urte osoan herrian bizi diren auzokideen % 90ak erabiltzen dituzte, hortaz, batzarkideen ustez, erraztasunak eman behar zaizkie, gertutasuna eta auzokideen adina kontuan harturik.

   Ondorio horietarako, hauxe dio: "*Quiero que sepa, que dichos contenedores llevan ubicados en ese lugar desde que la diputación decidió colocarlos cuando se empezaron a recoger los residuos en los pueblos, que desde entonces nunca ha ocurrido nada que sea consecuencia de que los contenedores estén ubicados en ese lugar.*

   Como usted ya sabrá, que en estos temas todos los vecinos estén de acuerdo se hace prácticamente imposible, si bien a nadie le agrada tener los

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

contenedores cerca, hay que intentar que estén en un sitio donde se perjudique de la menor manera posible."

Amaitzeko, Administrazio Batzarraren presidenteak dio herrira jo duten ordezkariek ez dutela kokapen egokirik aurkitu. Gainera, zalantzan jartzen dituzte harresia erortzeko arrazoiak, egoera hainbat teknikarik aztertu ondoren.

Gogoetak

1. Erakunde honetan aurkeztutako kexaren arrazoiak interesdunak 2012an planteatu zuen erreklamazioarekin du zerikusia. Garai hartan, edukiontzien kokapena aldatu ez izana erreklamatu zuen Osman kokaleku berria zehazteko eskumena izan zezaketen Administrazio Publikoetan, orduko kokapenak, bide-segurtasuna arriskuan jartzeaz gain, bere jabetzako lursaileko harresiaren zati bat erortzea eragin zuelako.

   Lehenik, argitu behar dira Osmako Administrazio Batzarrak adierazitako zalantzak, edukiontzien kokapenak harresiaren jabeari eragindako kalteen inguruan. Aurrekarietan azaldu diren txosten teknikoek eta jarduerek egiaztatu dute edukiontziak kexagilearen jabetzako harresiari itsatsita egoteak bere harresia jotzea eragiten duela, beira eta papera biltzeko edukiontziak kargatu eta deskargatzeko lanetan. Ondorioz, horman bizkar nabarmena sortzen denez, arriskuan jartzen da harresiaren egonkortasuna. Horrela azaldu du Errepideen Zerbitzuak bere informazio-txostenean. Izan ere, txosten hori aurrekari gisa erabili zen Añanako Kuadrillari arazoaren berri emateko, kokapen egokiago bat bilatzeko errepideen zaintzaren baimena eska zezan.

   Añanako Kuadrilla ere iritzi berekoa da, izan ere, kexagilearen jabetzako harresia konpontzeko eskatu dio Osman beira biltzeko zerbitzuaz arduratzen den enpresari. Harresia azkenean konpondu egin da, eta horrek egiaztatzen du egonkortasunean izandako kalteen jatorria: beira eta papera biltzeko edukiontziak kargatu eta deskargatzeko lanak, edukiontziek, mugitzen direnean, horma kolpekatzen dutelako.

   Hori dela eta, kexagilearen ondasunean izandako kaltea aitortua izan da, Osmako Administrazio Batzarraren presidenteak, konklusio hori ezezta dezakeen txostenik edo frogarik gabe, zalantzak adierazi dituen arren.

   Bigarrenik, bai Añanako Kuadrillak, bai Arabako Foru Aldundiak azpimarratzen dute edukiontziak dauden tokian egoteak, gainera, bide-segurtasuna arriskuan jartzen duela.

   Horiek horrela, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Araua (35, 36, 56 eta 57. artikuluak) oinarri hartuta,

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Herrilan eta Garraio Zuzendaritzaren balioespen teknikoak (2012ko maiatzaren 25eko proposamena) arriskua potentziala aipatzen du, errepide horren erabiltzaileen bide-segurtasunari dagokionez. Izan ere, ibilgailu bat toki horretan galtzadatik atera daiteke, eta, oro har, edukiontziak kargatu/deskargatzeko maniobrek arriskuan jartzen dute bide-segurtasuna, kamioiak, nahiko lekurik ez dagoenez, galtzadaren zati bat hartu behar duelako.

Laburbilduz, azaldutako aurrekariak ikusita, nahikoa ondo egiaztatu da edukiontzien egungo kokalekua ez dela egokia, pertsona baten jabetzan kalteak eragiten dituelako eta errepidea erabiltzen dutenen bide-segurtasuna arriskuan jar dezakeelako. Ondorioz, beharrezkoa da beste kokapen bat –egokiagoa– aurkitzea, edukiontziak bertan jartzeko.

2. Edukiontziak jartzeko kokapen egokia bilatzeko ardura zein administraziori dagokion galderari erantzun desberdinak agertu direnez, ezer baino lehen, aztertu behar dira hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren arloko eskumenak, baita arlo horrekin lotuta egoteagatik aintzat hartu beharreko beste eskumen batzuen eragina ere.

   Añanako Kuadrillako Batzarrak, 2009ko abenduaren 29ko bileran (ALHAO, abenduaren 30ekoa), hiri-hondakinak biltzeko zerbitzua arautzen duen zerga-ordenantza behin betiko onartzea erabaki zuen. 1. artikuluak honela mugatzen du eskumen eremua, zerbitzuaren ondorioetarako:

   "Toki Administrazioaren Erregimenaren Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84., 105. eta 106. artikuluek ematen dituzte, lege horretako berorretako 26.1.a) artikuluarekin lotuta (arlo honetako eskumena zehazten du, udalerriek, eurek bakarrik edo beste udalerri batzuekin elkartuta, hondakinak biltzeko zerbitzua eman behar dutela esatean) ordenantza hau emateko ahalmenak. Orobat, 63/89 Foru Arauaren 28 e) artikuluari eta Añanako Kuadrillaren Antolamendu eta Funtzionarmendu Araudiaren 7 eta 10 artikuluei jarraituz sorteen da ordenantza hau, Arabako Lurralde Historikoko Toki Administrazioko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/89 Foru Arauak ezarritako prozeduraren arabera (bereziki Foru Arau horren 15.etik 18.era bitarteko artikuluen, 20.etik 27.era bitartekoen eta 55. artikuluaren arabera)."

   Gainera, Ordenantzaren 15.6 artikuluak honela dio:

   "Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko 11/1995 Foru Arauaren 7 b) artikuluan ezarritako eskumenak baliatuz, Kontzejuek proposatuko dute edukiontziak non kokatu, eta Kuadrillak ebatziko du proposatutako leku horietan teknikoki zaborrak biltzerik badagoen. Kontzejurik ez dagoen lekuetan, Udalak erabakiko du aipatutakoaren arabera edukiontziak non kokatu."

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Hori dela eta, arau horren arabera, Osmako Kontzejuari dagokio edukiontzien kokalekua zehazteko eskumena. Kuadrillak onartu behar ditu Kontzejuak proposatutako kokapenak, hala ere, beretzat gordetzen du balio-judizioa emateko eskubidea, proposatutako kokalekuak **"teknikoki"** bideragarriak direla egiaztatzeko.

Ildo horretan, erakunde honen iritziz, edukiontzien kokalekuei dagokienez, Kuadrillari dagokio azken erabakia hartzeko ardura. Kontzejuaren proposamenarekin bat egin behar du, horretarako eskumena duenak zehaztutako kokapena ez dela teknikoki bideragarria espedientean egiaztatzen denean, hau da, aztertzen ari den kasuan bezala, aukeratutako kokapena aproposa ez denean izan ezik.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak arrazoitzen duenez, ikuspuntu juridikotik ez dirudi bidezkoa, ezta bideragarria ere, Foru Aldundiak Herrilan eta Garraio Zuzendaritzaren ekainaren 6ko 1314/2012 Ebazpenaren nahitaezko betearazte espedientea izapidetzea, horren xedea Osmako Kontzejuan dauden hondakinak eta beira biltzeko edukiontziak kentzea baino ez bada. Izan ere, hori eginez gero, bertako biztanleei oinarrizko zerbitzua denbora mugagabez kenduko lieke, auziaren mamia konpondu gabe, Osmako Kontzejuak edukiontziak aurreko kokalekuan jartzea erabaki ahal izango lukeelako.

Foru erakundearen arrazoibideari dagokionez, esan beharra dago, izan ere, Administrazio Publikoek ongi neurtu beharko dituztela, norberaren eskumenak baliatzerakoan, ukitutako interes publiko guztiak, eta, zehazki, gainerako administrazioek kudeatu behar dituztenak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 141.1 b) artikulua, indargabetua izan den 30/1992 Legearen 3. artikulua ordeztu duena).

Dena den, foru erakundeak, oinarrizko zerbitzua –hondakinen bilketa– ematea galaraz dezakeela ustez, edukiontzien kokapen desegokia salatzeko jarri den erreklamazioa aurrera ez eramatea erabaki du, errepideen zaintzari dagokion berezko funtzioa –errepideak etengabe erabilpen egoerarik hoberenean eta segurtasun-baldintza egokienetan edukitzea helburu duena– bete beharrean (Arabako Lurralde Historiko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren 36. eta 56. artikuluak).

Ondorio horietarako, planteamendu horri laguntzeko, foru erakundeak Extremadurako Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak maiatzaren 23an eman zuen 771/2000 zenbakidun Epaia aipatu du (RJCA/2000/1451). Horren xedea administrazioaren jarduna berrikustea izan da, udal batek abiarazi duen hondakinak biltzeko zerbitzuaren antolaketari, eta zehazki, bilketarako edukiontzien kokapenari dagokionez. Kasu hartan, edukiontzietako bat kexagilearen etxeko fatxadan instalatu zen. Foru erakundeak aipatu duen moduan kopiatzen dugu, planteaturiko kontuarekin

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

bat datorrelako, eta gainera, gero azalduko ditugun ondorioen ikuspuntutik interesgarria delako. Aipatu epaiaren planteamendua hauxe da:

"SEGUNDO (...) La cuestión en que queda centrado el debate es si el contenedor ha de estar necesariamente instalado en el lugar que se decidió por la Corporación, o *por el contrario, ha de buscarse otro emplazamiento a la vista de las razones puestas de manifiesto por el recurrente.*

TERCERO (...) y es cierto que existe en la decisión relativa a la ubicación de los contenedores una discrecionalidad administrativa en base a la cual la Administración ha de optar por alguna de las alternativas ofrecidas, siendo válidas en derecho; ahora bien no puede la discrecionalidad convertirse en arbitrariedad que proscribe el artículo 9-3" de la Constitución y para ello es necesario que por la Administración se dé una motivación suficiente sobre la opción escogida, decisión que reiterada jurisprudencia ha venido declarando susceptible de control jurisdiccional mediante la las técnicas de los elementos reglados de todo acto, los hechos determinantes o los principios generales del derecho.

CUARTO Sentado lo anterior hemos de proceder a determinar si en el caso de autos es admisible la decisión administrativa sobre la ubicación del contenedor a la vista de esos elementos controlables y, en particular la finalidad del acto que no es otro que compatibilizar la necesaria instalación de los contenedores y la salubridad o cuanto menos comodidad de los moradores de las proximidades donde se instalan así como la mejor forma de gestión del servicio. En el caso de autos, no existe justificación alguna sobre la necesidad o conveniencia al menos de que el mejor lugar para instalar el contenedor fuese la fachada del domicilio del actor; la ausencia de todo informe técnico permite concluir que ha sido la libre y voluntaria decisión de la primera autoridad local la que sirve de fundamento a esa instalación; es más, tan sólo se llega a decir que esa decisión estaba motivada por el hecho de que otros vecinos podían pretender el cambio de otros contenedores, argumento que no puede servir de fundamento a la decisión adoptada. Pero ***es determinante a estos efectos la actuación llevada a cabo por la Administración Autonómica que, respetuosa de las competencias municipales, no adoptó decisión alguna*** *pese a levantar a instancias del recurrente un acta de inspección por los Servicios de Sanidad, en la que se dejaba constancia de la incomodidad que ocasionaban el lugar que estaba instalado, llegando a proponer reiteradamente como alternativa el desplazamiento del contenedor diez metros a una franja de fachada en la que no existía vivienda alguna, propuesta a la que se da el silencio de la Corporación que pudo y debió justificar el mantenimiento del emplazamiento originario poniendo con ello de manifiesto que la discrecionalidad estaba carente de la misma finalidad del acto y, por ello deviene contrario al ordenamiento jurídico, debiendo ser reconocido el derecho del actor al emplazamiento del contenedor en el lugar propuesto".*

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Laburbilduz, epai horren eta aurretik azaldutako gogoeten haritik, ondorioztatu behar da, Osmako Administrazio Batzarrak egungo kokapena biztanle gehienentzat ona dela esan arren, ez dela arrazoi nahikoa hartutako erabakiari –edo erabakirik ezari– eusteko, kokapen horrek hirugarrenei jasan behar ez dituzten kalteak eragiten dizkienean, eta gainera, errepideei buruzko araudi sektoriala aplikatzen bada, bide-segurtasuna ere arriskuan jartzen duenean. Epaian esaten den moduan, edukiontzien kokapenari buruzko erabakian administrazioaren iritziak eragina badu ere, hautatzen den aukera ezin da arbitrarioa izan, ezta ordenamendu juridikoaren kontra eman ere.

3. Dena den, aurretik egindako gogoetek, berez, ez dute bermatzen aztergai dagoen zerbitzu publikoa ahalik eta hoberen eta egokien emango denik, aipatutako administrazioetako bakoitzak bere eskumenak baliatzen dituenean (URA-Uraren Euskal Agentzia ere gehitu behar da). Edukiontziak egokiagoa den beste toki batera (lehenbailehen, eta arazoa planteatu zenetik lau urte baino denbora gehiago igaro dela aintzat hartuta) eramateko eskaera aurkeztu zuen herritarraren eskubidea arriskuan egon daiteke, administrazio horietako bakoitzak duen erantzukizuna bere intereseko eremu batera mugatzen badu, jokoan dauden interes publiko guztiak neurtuta, behar den arrazoibide eta arrazoizkotasuna aintzat hartuta.

   Hori dela eta, erreferentziatzat hartutako epaian –Arabako Foru Aldundiak ekarri duenean– agertzen den moduan, azaldutako gaiari behar bezalako konponbidea eman ahal izateko, parte hartzen duten administrazio publikoek, euren jardunean, administrazioen arteko harremanetan, zuzenbideko printzipio orokorrei, batez ere, koordinazioan eta lankidetzan aritzeko printzipioei jarraitu behar diete. Printzipio horiekin bat, administrazio publiko guztiek arlo berean diharduten gainerako administrazio publikoen jardunen koherentzia bermatu behar dute, interes publikoko xede komunak lortze aldera. Horretarako, administrazio orok euren eginkizunak koordinatuko dituzte, eta eskumenak baliatuz eta ukitutako interes publiko guztiak ondo neurtuz (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 140.1 artikuluaren c) eta e) idatz-zatiak).

   Hortaz, izapidetzen ari den kexaren kasuan, hondakinak biltzeko zerbitzua behar bezala ematea da xedea eta erantzukizun publikoa, eta horren eskumena Añanako Kuadrillari dagokio. Helburua lortzeko, edukiontziak leku egoki batean jarri behar ditu, eta horretarako, Osmako Administrazio Batzarraren elkarlana behar du, horrelako kokapena zehazteko. Edukiontziak beste toki batera eramatekotan, aintzat hartu beharko dira, alde batetik, araudi sektoriala –errepideei zein jabari publiko hidraulikoari buruzkoa–, eta bestetik, partikularrek euren ondasunez bakean gozatzeko duten eskubidea.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Añanako Kuadrillak, zentzuzko epe batean, Osmako Administrazio Batzarrarekin eta parte hartzen duten gainerako administrazio publikoekin elkarlanean, ezarritako tokiaren arabera, hondakinak biltzeko edukiontzien kokapena aldatzea eta, Osma herrian, egokiena den toki batean jartzea bultzatu behar du.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus